# Matematikak

Oinarrizkoak bideoz

# Hirukien eraikitzea

## haien hiru luzerak ezagutuz geroz

**BIDEOAREN TRANSKRIPZIOA**

***Argi***
Bideo honetan, ikusiko dugu hirukiak nola eraiki,
haien hiru luzerak ezagutuz geroz.

***Zehatz***
Hain zuzen HIR hirukiaren eraikitzea da helburua;
HI 6 cm-koa, HR 4 cm-koa eta IR 8 cm-koa izanik.

***Argi***
Aginduaren irudikatzeko, hasten ahal zara eskemaren egiten.
Eta eraikuntzaren gauzatzeko, arkatza, erregela eta konpasa erabiliko dituzu

***Zehatz***
Ados, ARGI, baina zein aldetarik hasi?

***Argi***
Luzeenetik hastea aiseago da hirugarren puntuaren kokatzeko.

***Zehatz***
Beraz IR aldea marrazten dut.

***Argi***
Kasu, ZEHATZ ez ezazula ahantz segmentuaren muturren markatzea eta puntuen izenen ematea...

***Zehatz***
Orain, H puntuaren kokatzera entseatuko naiz.
I puntutik 6 cm-tan den puntu bat markatzen dut,
erregelaren laguntzaz.

***Argi***
Baina hirugarren luzera neurtuz, ohartzen zara ez dela 4 cm-koa.

***Zehatz***
Egia da... Berriz eginen dut... Berdin balio du...
Hiru entsegu egin ditut eta ez dut lortu H puntua leku egokian kokatzea…

***Argi***
Horrek erran nahi du metodo hori ez dela egokia.
Baina lasai zaitez ZEHATZ; entseguetan ageri den bezala,
H puntua zirkulu baten puntu bat da, I puntutik 6 cm-tan baita.
Zirkulu horren zentroa I puntua da eta erradioa 6 cm-koa da.

***Zehatz***
Ados, konpasa 6 zentimetroz irekiz eta haren punta I puntuan ezarriz, zirkulua marrazten ahal dut,
eta orain badakit H puntua zirkulu horren puntuetarik bat dela.

***Argi***
Hori da eta HI luzeraz baliatuz egin duzuna, HR luzeratik abiatuz egin dezakezu.

***Zehatz***
Erran nahi baita H puntua, R zentroko eta 4 cm erradioko zirkuluaren barne ere dela.

***Argi***
Bai, eta azkenean, H puntua bi zirkulu horien ebaki-puntu bat da.

***Zehatz***
Ados, ondorioz bi ebaki-puntuetarik bat hautatzen dut.
Eta adibidez goian dena erabiliz, hirukiaren eraikuntza gauzatzen ahal dut !
Baina, ARGI, bigarren ebaki-puntua hautatuz, beste hiruki bat eraiki daiteke. Biak xuxen ote dira?

***Argi***
Alabaina, ZEHATZ, biak xuxen dira.
Bigarrena eginez eta biak moztuz, ohartzen zara (IR) zuzenaren luzaran plegatuz
hiruki horiek gainezargarriak direla.

***Zehatz***
Ororen buru, bi hiruki horiek hiruki berdinak dira (izari berak baitituzte)!

***Argi***
Horregatik, kaierean edo orrian den tokiaren arabera,
bata edo bestea eraiki daiteke!

***Zehatz***
Bideo honetan ikusi dugu hirukiak nola eraiki hiru aldeen luzerak ezagutuz geroz.

***Argi***
Zuen aldi da orain!